

EUDELeK Erakunde-adierazpenerako eredua proposatu die Euskadiko udalei martxoaren 8rako, "Nazioarteko Emakumeen egunerako"

- **Testuak emakumeen protagonismo handiagoa aldarrikatzen du, udal bizitzako erabakietan. Udaletako emakume hautetsiak nahiz herritarrak aipatzen ditu, tokiko politikan partaidetza eta eragiteko gaitasuna handitzeko.**

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta, EUDELeK Erakunde-adierazpenerako eredua egin du, Euskadiko udalek erreferentzia gisa erabil dezaten. Era berean, eta udal autonomia errespetatuz, EUDELeK udalek bultzatu ditzaketen ekimenak babestuko ditu, emakumeek tokiko bizitzan benetako berdintasuna eta berdintasun efektiboa izan dezaten.

EUDELeK, Berdintasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarearen (Berdinsarea) koordinatzaile gisa, bere funtzioen artean, besteak beste, herritarren artean berdintasuna bultzatu eta sustatzeko tresnak eskaintzen ditu, batez ere, udalerrri txikiei dagokienez.

Adierazpenaren gai nagusia honakoa da: emakumeen partaidetza udaletako bizitzako erabakietan. Testuak tokiko hautetsiak, bai alkateak bai udaletan politika egiten duten zinegotziak, eta herritarrak eurak, hautesle gisa, ditu hizpide. Protagonismo handiagoa eskatzen da bientzat, udal politikan partaidetza aktiboarekin eta eragiteko gaitasunarekin.

Adierazpenean jasotzen den bezala, Euskadiko alkateak %22tan dira emakumezkoak nagusi, eta %78tan, berriz, gizonezkoak. Uste da aipatutako horrek **"agerian uzten duela argi eta garbi kristalezko sabaia dagoela esparru horretan"**. Antzekoa gertatzen da zinegotzigoekin: ez soilik emakumezko zinegotzien kopuruak ez duelako %40,6 gaitzen, baizik eta, horrez gain, garrantzi sinboliko txikiagoko eta aurrekontu murriztagoko sailak hartzen dituztelako euren gain.

Egoera horren aurrean, Adierazpenak premiazkotzat jotzen du emakumezkoen presentzia eta eragina areagotzea udal politikako esparru guztietan. **“Baina ez da soilik irrikatzen dugun %50era heltzearen kontua; zifretatik harago joan behar dugu”**, zehaztu du.

Testuan, EUDELEk hausnarketarako eta trukerako sareak eta espazioak sortzearen aldeko apustua egiten du, hain zuzen ere, esparru guztietan emakumearen papera sendotu dadin, politikagintzan barne. Helburu horrekin egituratu da BASQUESKOLA, EUDELEk sustatutako Euskadiko udaletako emakume hautetsien lehenengo sarea.

Proiektu hau 2012ko ekainean abiarazi zen, eta Euskadiko emakumezko alkate eta zinegotzien lidergoaren alde egiten du lan, Euskadiko udal guztietan berdintasun politikak sendotu daitezen.